

Gutxigatik ez da 800 elkar-gokidetara heltzen Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoak ordezkatzeko dituen profesionalen kopurua. Orain, historian lehen aldiz, emakume bat egongo da erakundearen buruan, Gipuzkoa eta EA-En, nabarmendu dutenez. Ez hori bakarrik, ondoan izango duen batzordea ere lehen aldiz ere parekidea da, generoari dagokionez. Nagore Azuabarrena Anduagak hurrengo lau urteetan aurrean dituen erronkez hitz egin du GAUR8rekin. Onartu du emakumezko bat presidentetzara heltzea urratsa egin eta ardura hartzeko

bultzada izan dela, baina sektorean bizi denaren isla dela erantsi du, jardueraren egunerokotasunean parekotasun zifretara heltzen ari delako ofizioa, obra postuetan, udal postuetan edo postu liberaletan, besteak beste. Egia esan, egunerokotasunaren arlo ugartan daude aparejadoreak, baina zer dago lanbidearen atzean? Hainbat zertzelada eman ditu, ofiziora hurbiltzeko.

Elkargoaren historiako lehen presidente emakumezkoa eta lehen aldiz parekidea den batzordea. Urrats naturala izan dela esan duzu, lanbidean dagoenaren isla.

Bai, aurreko batzordean hiru gizonezko eta bi emakumezko

ginen, eta orain, hiru eta hiru gara. Gero eta emakume gehiago gaude lanbide honetan, gero eta emakumezko gehiago dago obretan, ez langile bezala, baina bai aparejadore bezala, eta horregatik diogu elkargoak kaleko errealitatea islatzen duela, emakumeak ere hor gaudelako, eta nahiz eta aparejadore gizonezko asko egon, emakumezkoak ere badaudelako.

Zeintzuk dira elkargo baten zereginak?

Asko. Alde batetik, ikus-onesiak egiten ditugu, dokumentuen kontrola, gure elkargoan sartzen diren proiektuek gutxienezko batzuk betetzen dituztela ziurtatzea... baina horrez gain, formazio ikastaroak

«Kasu askotan, ikus-onesiak agian ez dira beharrezkoak baina beti esaten dugu horrek segurtasuna ematen duela, beste formaltasun bat du eta beste berme batzuk ditu»

egiten ditugu, proiektu edo obren gainean heltzen diren kontsultak erantzuten ditugu, aseguru profesionalak kudeatu... eta kultura ekitaldiak ere antolatzen ditugu. Gauza asko dira, baina garrantzitsuenak behar gaituztenean gure elkargokideen atzean egotea da. Ager daitezkeen behar horiek ezberdinak dira, batzuentzat kulturalak izan daitezke, beste batzuentzat profesionalak, aseguru buruzkoak, formakuntzari lotutakoak...

Proiektu guztiak pasatu behar dira elkargotik oniritzia jasotzeko?

Guztiak ez. Proiektu mota asko ditugu, eta arkitektoen ondoan gaude obra handietan. Obra handietako zuzenbide



«Europatik datozen dirulaguntzen kudeaketan, erreferentea izan nahi dugu herritarrentzat»

horiek, adibidez, bai, ikus-one-
tsiak izan behar dira. Sarritan
esaten dugu kasu askotan oni-
ritzia agian ez dela beharrez-
koa baina horrek segurtasun
bat ematen dizu, eta eramaten
duzun lekuan ikusi ahal izatea
proiektua nonbaitetik pasatu
dela, errebisatuta dagoela...
beste formaltasun bat da eta
beste berme batzuk ditu. Ho-
rren atzean, aseguru bat dago,
edozer gertatzen bada elkargo-
ak kudeatzen dizkizu gauza
guztiak... Badaude guk baka-
rrik egin ditzakegun lanak,
adibidez, etxeko berrikuntza
bat, baina lan handiek bi figu-
rak behar dituzte, eta legeak
ezberdintzen du zer den obra
handia eta zer txikia. Handia
bada, arkitektoa eta aparejado-
rea behar ditu, derrigorrezkoa
da.

Zeintzuk dira Nagore Azuaba- rrenak hurrengo lau urteeta- rako Gipuzkoako Elkargoa- rentzat finkatu dituen helburuak?

Beti esaten dut hemen gaude-
la elkargokideak eskatzen due-
na eta behar duena emateko.
Orduan, egin behar dugun le-
hen gauza da zer behar duten
jakitea eta gero gauzatzea. Ga-
koa da zerbitzurik onena ema-
tea, elkargoa beraiek direlako.

Karguen berritzearen harira, nabarmendu da batzordeko ordezkaritzan «lanbidearen ofiziozko ereduak» ordezka- tuta daudela, «ikuspegi posi- ble guztiak barrutik islatuta egon daitezen». Hain desber- dinak dira lanbideak dituen ofizio ereduak?

Oso ezberdinak dira. Gure lan-
bidearen barruan hainbeste
gauza egin ahal ditugu! Adibi-
dez, udal arkitekto tekniko ba-
tek, udal bateko teknikaria de-
nak, txostenak egiten ditu,

obra baimenak eman... Beste
aldean, badago lizentzia hori
eskatzen duen aparejadorea,
hau da, proiektua egiten due-
na, udalean sartu behar due-
na... Gero, badago proiektua
gauzatzen duena, garatu egi-
ten duena, kontrata bat dauka-
na... Badago oso ezberdina den
arlo bat, segurtasuna obran,
obretan segurtasuna betetzen
dela ziurtatzea da... Oso ikus-
puntu ezberdinak dira, zeren
badaude promozioetan ari-
tzen direnak, proiektu bat au-
rrera ateratzeko beste apareja-
dore eta arkitekto bat
kontratatu dituen... Horren-
beste elkargokide izanda, saia-
tu gara batzordean ikuspuntu
ezberdinak biltzen, ikuspegi
ezberdinak izateko egon dai-
tezkeen behar desberdinei
erantzuteko.

Lanbideko adar horien guz- tien artean, aparejadore auto- nomo liberalak aipatzen dira.

Bai, horiek dira gauza gehien
egiten dituztenak, denetarik
egiten dutelako. Hau da, ez
daude enpresa batean, adibi-
dez, bakarrik segurtasunaz ar-
duratzeko. Agian, enpresa ba-
tean segurtasuna kudeatu, eta
beste obra batean proiektua
egiten dute, beste batean arki-
tekto batekin exekuzioa egiten
du... Udaletxe batean lanean
dagoen aparejadore batek
txostenak egiten ditu eta bai,
txosten oso ezberdinak dira,
baina udaletxe txikietan agian
gauza gehiago egin behar di-
tuzte.

Helburuen artean, herrita- rrengana hurbiltzea da zu- zendaritza berriak aipatu duen erronketako bat. Nola gauzatuko da hori?

Esan digute irailean aterako
direla Europatik etortzen di-
ren dirulaguntzak eta oso po-

tenteak izango dira. Gustatuko
litzaiguke, adibidez, kaleko
jendeak, herritarrek, gu errefe-
rente gisa izatea, guregana
etortzeko eta galdetzeko, la-
guntzea badaukagulako. Adi-
bidez, guk ireki dugu jada ze-
rrenda bat, eta esan dugu
nortzuek nahi duzue hemen
sartu, norbait etortzen bada
esateko prest egongo zaretela
laguntzeko eta dirulaguntza
horiek guztiak kudeatzeko? Bi-
zilagunen komunitate batean
arazoak badaude, ez badakite
nondik jo..., aukera ere badago
elkargoarengana jotzeko, eta
lagunduko diegu. Bilatzen du-
guna da herritarrek jakitea gu
hor gaudela, beraiei laguntze-
ko gaudela.

Aukera dago, orduan, erakun- deek dirulaguntzen lerro bat zabaltzen badute, elkargoa- rengana jotzeko?

Noski, egiten diguten konsul-
taren arabera alde batetik edo
bestetik bideratuko genituzke.
Azalduko genuke: 'kasu hone-
tan aparejadore bat kontratatu
behar duzue edo arkitektoa
eta aparejadorea, honengana
jo, honela egin...'. Egongo dira
guk egin ezin ditugun gauzak,
baina aholkua emango diegu.
Asmo horrekin, orain urte as-
ko ireki genuen webgunean
atal bat egokitu genuen herri-
tarren kontsultak jasotzeko.

Pandemiaren ondorioz, asko- tan esan da espazioei begira- tzeko modua aldatu dela. Zuen lanbidean nabaritu du- zue enfoke berriak edo begi- rada berriak daudela?

Goiz da oraindik jakiteko, den-
bora gutxi da, baina argi dago
pandemia honek espazioak
begiratzeko oso modu ezber-
din bat utzi duela. Ikusten da
etxe bat erosterakoan... baina
goiz da esateko, oraindik ez

NAGORE AZUABARRENA

GIPUZKOAKO APAREJADORE ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGOKO PRESIDENTEA

Nagore Azuabarrena Anduaga (Donostia,

1979) Gipuzkoako Aparejadoreen

Elkargoko lehenengo emakume

presidentea da. Donostiarrak

erakundearen erronkez eta oso presente

dagoen baina gutxitan albiste den

lanbideaz hitz egin du GAUR8rekin.

Nerea Goti

dugu oso argi igarri baina joera badago; hasi gara ikusten.

Azken batean, horrek isla izango du lan berrietan, ezta?

Oso argi ikusiko da norbaitek etxe bat egin nahi duenean. Erreforma txikietan ikus daiteke, baina zailagoa da. Hobe to ikusiko da etxe eta eraikin berrietan.

Izurriteak eragina izan du zuen lan eremuan?

Osasun egoeragatik ezarri zen etxealdiko hilabeteetan bai, dena gelditu zelako, baina oro har ez dugu gehiegi nabaritu. Gehienetan, gure lanbidean, krisialdia dagoenean beti iristen zaigu zerbait. Kasu hone tan, elkargoan ez dugu nabaritu. Ikus-onetsien kopuruari begiratzan badiogu, zenbat dauzkagun eta zenbat ez, ez dugu beherakada nabaritu, berdin jarraitu du.

Hurrengo urteetarako helburuen artean, aipatu duzue lan, kultura eta hezkuntza proposamen berriak egiteko asmoa dagoela.

Ikus-onetsia egiten duten ki-deek asko erabiltzen dute elkargoa, kudeaketa hori egiteko elkargoa behar dutelako, baina lanbidean zeregin hori ez duten elkargokide asko daude eta uste dugu proposamen eskaintza zabalagoa egin behar dugula, kultura arloan ere bai. Finean, asmoa da elkargoan egoteagatik ordaintzen den kuota horrek era askotako eskaintzak izatea, kulturalak ere bai. Bestalde, elkargokide berrien kasuan, ikasketak bukatuta elkargora etortzen dira eta beraientzako lan eskaintza zabal bat daukagu, adibidez.

Nondik datorkio lanbiderako bokazioa Nagore Azuabarre-



Gorka RUBIO | FOKU

nari eta nola heldu da elkargoko presidentea izatera?

Bultzada etxean neukan, zeren aita aparejadorea izan da, jubilatuta dago orain, baina. Orduan, etxean banuen lotura hori eta, gainera, iruditzen zitzaidan lanbidea oso malguzela, aukera asko ematen zizkidana. Karrera bukatuta estudio batean hasi nintzen lanean, beranduago libre aritu nintzen... baina nire ustez lanbide honek eskaintzen duen onena da egun guztiak desberdinak direla, obrak ezberdinak dira eta aldaketa asko eta handiak izaten dira batetik beste-

ra, ez zara aspertzen. Obra bat hasi, bukatu ere ez denean egin beste bat agertu... eta bigarrenak ez dauka aurrekoarekin zerikusirik. Monotonia baten barruan ezingo nuke lan egin, baina lanbide hau ez da batere monotonoa. Behin elkargoan sartuta, poliki-poliki egiteko gogoarekin gauza gehiagorekin ausartzen zara eta iristen da unea aukera sortzen zaizula, eta egia da historian lehen aldiz emakume presidente bat izan ahal izateak lagundu zuela pausoa ematen. Gustuko ditut elkargoan dauden zereginak eta berdina zait

non egin behar diren, goian, behean, aurrean edo atzean, baina iruditzen zitzaidan bazela aukera on bat emakume batek ardura hartzeko. Hori izan zen erronka hartzeko gehien bultzatu ninduen.

Ba al duzu proiektu kutunik?

Ezingo nuke bat aukeratu, denek daukate bere gauza, eta azkenean zera baloratzen dut, dena ondo bukatu eta bezeroa gustura gelditzen dela baieztatzea. Bezeroak esaten dizunean 'eskerrik asko, oso pozik gelditu naiz, oso gustura egon naiz zurekin', horrek ikusaraz-

«Goiz da oraindik jakiteko, baina argi dago pandemia honek espazioak begiratzeko oso modu ezberdin bat utzi duela. Oraindik ez dugu oso argi igarri, baina joera badago; hasi gara ikusten»



ten dizu zure lanak merezi duela.

Formakuntza aldetik, zer eskatzen dute elkargokideek?

Gure lanean eragiten duten araudiak ia egunero aldatzen dira, dekretu berriak, etxebizitzetako araudiak aldatzen dira, kode teknikoaren ez dakit zer sail berritzen da... eta horrek eskatzen du eguneratuta egotea. Horregatik saiatzen gara ikastaroak antolatzen, araudi berri horien guztien berri emateko. Orain pentsatzen ari gara gauza bitxiagoak eta desberdinaoak ere proposatzea.